



Eman hegoak euskarari



Frankenstein

Victorren zalantzen eta erreparoen aurrean, munstroak mehatxuaren bidea aukeratzen du

ARITZ GORROTXATEGI

Literatur mito handi batzuk zinemari esker iritsi zaizkigu batez ere, zinemak «desitxuratuta». Hor ditugu, esaterako, 'Pinotxo' edo 'Peter Pan'. Filmak alde batera utzi, eta jatorrizko liburuak hartzen baditugu, ohartuko gara zeluloidak bere erara bezatu eta moldata dituela paperezko pertsonaiak, ez dutela zerikusirik handirik jatorrizkoekin. Hezigaitza goak direla, ilunagoak. Antzeko zerbait gertatzen da Mary Shelleyren 'Frankenstein'ekin. Gure irudimen kolektiboan bizi den pertsonaia da, izugarrikeriarekin eta neurrigabekeriarekin lotua. Litekeena da begietan gordetzen dugun irudia 1931ko filmari zor izatea, batez ere Boris Karloffren itxura izugarriari esker. Gerora, Victor Ericen ba-

liatu zuen film hura 'El espíritu de la colmena'ko eszena goangarrietako batean. Ez dira gutxi izan, halaber, zinemak egindako egokitzapenak. Batzuk nobelari gehiago edo gutxiago leialak; beste batzuk, ez horrenbeste. Eta badira bertsiotz parodiakoak ere. 31ko filmean, loreak bukatzean, uretara botatzen zuen Frankensteinek neska, jolasarekin jarraitzeko eta asmo txarrik gabe (sekuentzia hura zentsuratu egin zuten hainbat lekutan). Liburuan, bere eskuez itotzen zuen, intentzio osoz.

Ezaguna da zer testuingurutan idatzi zuen Shelleyk. 1816ko ekainaren 16ko gauean, Leman lakuaren ertzean, Villa Diodati izeneko etxean (1638an John Milton izan zen bertan), besteak beste Mary Shelley bera (ezkon

aurreko izenez, Mary Wollstonecraft), bere senarra, Percy Bysshe Shelley, John William Polidori, Matthew Lewis eta Lord Byron zeuden bilduta. Elkar entretentzeko, beldurrezko istorioak kontatzen hasi ziren. Poeta, idazlegai eta aditu haien artean, 21 urteko Mary Shelley izan zen besteak aho bete hortz utzi zituen berari bururatutako istorioarekin. Gau hartan jaiotzen Frankensteinen mitoa eta beste mito batzuk, Polidori asmatutako banpiroarena, esaterako. Edo han sortutako madarikazioarena, Villa Diodati egon ziren gizon guztiak hurrengo zortzi urteetan hil baitziren.

Shelleyk bigarren izenburu bat jarri zion bere lanari, 'Prometeo Modernoa'. Bigarren horrek asko argitzen digu bere as-

moez. Izan ere, hutsetik sortutako munstroa izaki sentikorra eta adimentsua da (Goetheren 'Werther'a irakurtzen du), batez ere Victor Frankensteinekin nobelaren erdialdean duen hizketaldian. Bakarrik sentitzen da, desorientatua. Bere kabuz ikasi behar izan ditu munduaren gorabeherak (hizkuntza, kasu), jendea ezkutupean zelatatuz. Lagundu egin nahi die, baina bere burua jendaurrean agertzen duenean, izua eta indarkeria eragiten ditu. Arbuio hori eramatea ez da erraza, eta bere sortzaileari konponbide bat eskatzen dio, sor dezala bera bezalako beste munstro bat, baina emakumezkoa. Biak elkarrekin bizi daitezten, elkar ulertuz eta gizakien mundutik aparte. Munstroa prest dago Mundu Berrira joateko. Errukia eskatzen dio bere sortzaileari. Baina Victorren zalantzen eta erreparoen aurrean, munstroak mehatxuaren bidea aukeratzen du. «Zurekin arrazoitzen saiatu nintzen, esklabo, baina frogatu duzu ez duzula merezi zurekin amore-emaile jokatzera. (...) Zu zara nire sortzailea, baina neu naiz zure

jabea». Nabarmenezkoa da, bestalde, Shelleyk ez duela ia ezer esaten bere nobelan esperimentuari buruz. Egia esan, oso hanka-puntetan pasatzen da zien-tziaren alderditik. Garai klasikoko pentsalari batzuk aipatzen ditu, Kornelio Agripa, Paracelso, Alberto Magno... eta gero ezer gutxi.

Liburuaren idazlea nor den esango ez baligute, nobelaren zati handi batean R. L. Stevenson lan bat irakurtzen ari garela pentsatuko genuke. Baina, jakina, Shelley Stevenson baino lehenagokoa da. Idazlearen erreferenteak garai erromantikokoak dira: E.T.A. Hoffman, Goethe, Byron bera... Shelleyren eleberriaren heroien eta antiheroien bakardadea dira nagusi. Nekez integra daitezke gizartean; bata, munstro bat delako; besteak, berriz, munstro horren madarikazioa itsatsita daramalako. Munstroak mendekuaren bidea aukeratzen du, sortzailearen ingurukoak suntsitzea, giza bakardadera kondenatzea. Hura arima bitan zatitzen duten barne-gatazketan jartzen du arreta idazleak.

Hilartizetan

PALOMA RODRIGUEZ-MIÑAMBRES

Balea Zuria argitaletxeak aurrera jarraitzen du jatorriz euskaraz idatzi zein gure hizkuntzara itzulitako poesia-lanak ezagutarazteko asmoarekin. Aurten Edgar Lee Mastersen liburu ederra ekarri digu Alain López de Lacalleren euskarazko bertsiotan. Masters oso idazle ezaguna da literatura anglosaxoian eta bere obra Ameriketako Estatu Batuetako kanon literarioan sarturik dago, poesiazaleei ulergarria suertatuko zaiena ale hau irakurri ondoren.

1915ean eman zen argitara 'Spoon River Antologia' baina justizia, antibelizismo eta berdintasunaren aldeko aldarriak dirau poema hauetan, mende bat igaro bada ere. Korrante errealistako poesia ondu zuen Mastersek eta giza izaeraren muin gogorrean iristen da. Hurkoaren mina edo poza sentiarazten digu, unibertsaltasun mezua islatzen duena.

Poema-liburu honek existitzen ez den Spoon River hiriko biztanleen bizitzak kontatzen ditu. 244 pertsonaia, lehenengo pertsonan. Berezitasuna da hango hilerri baten horma-hobietan idatzirikoak balira bezala aurkezten direla olerkiak, izen-abizenak eta izengoitiak ikusgai. Hildakoak beren istorioei buruz mintzatzen zaizkigu hilartizetik, bete zituzten kargu, ogibideen edo beren eguneroko bizitza izan zenaren argitan, esate baterako, doktoreak, gauzaina, aguazila, diakonoa, epailea, arrabataria, okulista, etab. Halaber, adi egon behar du irakurleak poema batean ageri den pertsonaia aipatua delako beste batean, askotan aldameneko orrian. Modu horretan ahots desberdinek aberasten dituzte adierak, errealitate bereko alde eta ifrentzua.



SPOON RIVER ANTOLOGIA
E. L. MASTERS
Itz.: A. Lopez de Lacalle. Balea Zuria.
334 or. 29 euro

Heriotzaren aurrean denek dute zer kontatu -kexuak, harrotasuna, damuak-, egiak airean, haien hipokrisia albora, sekretuak ezkutatzeko arrazoiak desagerturik, zeren heriotzak desinhibitu, askatu egiten baitu hildakoen mihia, bizierak etsipenekin nola egin duen talka, duintasunak umiliazioarekin, luxuak miseriarekin erakutsiz.

Eskerrak irakurleei

ARANTXA URRETABIZKAIA



Liburuaren guna da apirila, urtero errepikatzen den ospakizuna. 'Liburu' hitzak ez du, soilik, literatura babesten, baina literaturaren ingurugiro nagusia dira, oraindik ere, paperezko liburuak. Izan ere, liburuak asmatuz arrakastatsuen artean dago. Ez du iraungitze datarik, ez du pilarik edo argindarrik behar, ez du ezer eskatzen eta asko eskaintzen du.

Gure belaunaldikook euskarazko letren munduan hasi ginenean, ez genuen ezer, apenas genuen argitaletxerik, ez hizkuntza eredu adosturik. Apenas genuen irakurlerik. Gogoan dut nola espero genuen orduan hasten ari ziren ikastolek sortuko zituztela gure lanak irakurtzeko gai izango ziren pertsonak.

Gure aurreko belaunaldiei berdin ger-

tatzen zitzaien, are gure letren izen handienei. Azalpen bitxiak ere ematen ziren irakurle falta horren iturburu non zegoen adierazteko orduan. Gure hizkuntza ahozkoa zela, idazten ez duen herria zela gurea, ahozkoa gure hizkuntza.

Bada, joan da geroztik mende erdi luzea eta bitarte honetan gauza asko frogatu dira: gure hizkuntza ez dela, soilik, ahozkoa, lortu dugu hizkuntza eredu bateratua, gure literaturak ez du inguruko literaturerik iraganen zuen atzerapean, gure liburuak beste hizkuntzetara itzultzen dira.

Eta, gainera, ez da soilik baditugula irakurleak. Hori baino mirari aberatsagoa gauzatu da gure gizartean: irakurle antolatua ditugu, irakurle taldeak. Uste dut ez dugula, oraindik, gertakizun hori aski ospatu ez ikertu. Baina hor daude, herri handi nahiz txikietan, irakurle taldeak. Niretzat, ezusteko miraria.

Adosten dute ze liburu irakurri, maiztasun jakin batekin eta sustatzaile batekin. Irakurtzen dute liburu bat, aztertzen dute, eztabaidatzen dute, gai dira tarteka gonbidatzen duten idazleari funtsezko galderak egiteko, hitzen azpian edo gainean dagoena azaleratzeko.

Esandakoa: mirari pozgarria.

SALDUENAK

FIKZIOA

1 Miñan

Amets Arzallus/Ibrahima Balde. Susa

2 Animalia domestikoak

Esti Martinez. Elkar

3 Eraikuntzarako materiala

Eider Rodriguez. Susa

4 Bar Gloria

Nerea Ibarzabal. Susa

EZ FIKZIOA

1 Pantailen garaipena

Iñigo Martinez. Elkar

2 Zaintzaren hariak

Felix Arrieta. Elkar

3 Irunberri 1900

Pako Aristi. Erein

4 Zoriontasunaren defentsan

Epikuro. Katarra